

SSHE ekonomikoa



S i n d i k a | H e z i k e t a

3.

Neoliberalismoa
zertan den.
Hurbilketa saioa

LAB
Hezkuntza

**ZA
BAI
TZEN**

Zbkia

SHK00017

DOKUMENTAZIO
ZENTROA

3.

**Neoliberalismoa
zertan den.**

Hurbilketa saioa.

3. Neoliberalismoa zertan den. Hurbilketa saioa.

Moduluaren programaketa eta helburuak.

Modulu honen garapenerako lansaio edo egun bakarra erabili beharko da, aldez aurretik koadernotxoa irakurrita ekartzea ezinbestekoa izanik; ezadostasunak azalduz, zalantzak plazaratuz -eta abar- eztabaidan parte hartzea bezain ezinbestekoa, hain zuzen.

Hona hemen moduluaren helburua:

● Ideologiaren alderditik gure jardueran determinatzailea den gai bati buruzko ezagutza eztabaidaren bidez aurrera egitea. Izan ere, norberaren alor pertsonalean nahiz taldea garen aldetik ere, bieran, aurrera egingo badugu, Neoliberalismoa den piztiari gudua egiteko estrategia bat gauzatzen jakin beharko dugu, horretarako nahitaezkoa izanik gertaerak sustraitik ezagutzea.

Idazlea: **Joselu Cereceda (Ekonomilaria).**

Argitaratzailea: **Ipar Hegoa Fundazioa**

ipar·hegoa



3.

Neoliberalismoa zertan den. Hurbilketa saioa.

SARRERA

Merkantilismotik Liberalismora

Keynesianismoa

Neoliberalismoa, edo jatorrira itzultzea

Baina, ba al da merkatu-ekonomia inon?

“Norberak zer merezi, huraxe dauka”.

Lan-merkatua

Arazoa ez da langabezia, inflazioa baizik.

Helburua: Ongizatearen Estatuaren eraispena.

Noeliberismoa eta bere ondorioak.

GALDEKETA

BIBLIOGRAFIA

Mundu mailan egun bizi dugun "gauzen egoera" honetara iristeko gizakiak zer egin duen eta egin duen hori zergatik egin duen ulertzearen egin dezakegun edozein ahaleginetan sartu baino lehen, kontutan izan beharko genuke, hasteko eta behin, aberastasunen jabe bila-tzeko halako gogo grina bat dela sistema menperatzaile hau gida-tzen duena, menderik mende eta oso aspalditik. Bada, grina horrek berez dakar aberastasunak etengabe pilatzeko ahalegina, horretarako behar diren bitartekoak jarriz, batetik, eta pilakuntza horri oztopo egin edo areagotzea eragotz diezaioketen guztiaren kontra joz, bestetik. Filosofia horri Sistema Kapitalista iritzi edo deitu izan zaio.

Horra hor gakoa, mendeetan zehar munduaren bilakaeran eragina izan duten gertaerak ulergarri egiten dizkigun gakoa, hain zuzen. Gertaera horietako batzuek aurrerapena ekarri dute, eta alde horretatik begiratuta nolabaiteko ongizatea edo aurrerabidea ekarri dute. Haatik, Sistemak, irabaziak pilatzeko premiak bultzatuta, teknologi-aurrerapenak behar dituelako izan da alderdi positibo hori gertatzea. Beste gertaera batzuek, gehienek, historia odolez eta oinazez bete dute.

Sistema hau, bere helburuei muga jarri edota eragozpen egin diezaioketen zernahirekin aurrez aurre jarriz gero, kupidagabea da. Askotan ez da erraza izaten hura gidatzen duten ageriko buruak zein diren zehaztea ere. Beraz, hara hor hausnarketa sakona eragin beharko ligukeen datua.



Merkantilismotik

liberalismora.

Merkantilismoa.

En sus orígenes Hasiere batean Sistemaren jatorrizko pilaketa-prozesua oso primarioa zen, logikoa ere badenez bestalde, eta merkatalgaien trukean zuen oinarria. Hala bada, erraz ulertzeko modukoa da haren hastapen teorikoak Teoria Merkantilista delakoan gauzatu izana, berori izanik Erdi Arotik aurrera eta Industria Iraultza etorri arte indarrean egon zen teoria.

Aipatu berri dugun aro historiko horretan produkzioa kontrolatzen zutenek -merkatariak gehien bat- bultzatu nahi zuten Estatu indartsua zen, eta merkataritzaren eta ekonomia osoaren erregulazalea eta atzerriko merkatalgaien sarrera kontrolpean jagon eta norberaren gaiak kanpoan saltzeko bidea errazteko gai zen bera.

Estatuari buruz zegoen irudia, aldiz, inongo idealik gabeko pentsamendu politiko batek taxutua zen eta, ondorioz, haren boterea baliabide, prozedura eta teknika materialetatik eratorritakoa zen erabat. Merkantilisten begietara txanpona eta merkatalgaia gauza bera dira, gauza bakarra eta, horrela ba, jende haientzat metal prezia- tuak aberastasunaren adierazkari hoberenak ziren. Estatuaren indar politiko, ekonomiko eta politikoa azken helburutzat hartzen zirenez gero, gizakiak helburu horietara iristeko bitarteko hutsak ziren, besterik ez. Filosofia horrek hor irau-



Merkataria. Garai batean salgai- trukea egiteko modua.

go du Historian zehar luzaroan, hitz edergarri eta apaindura berriz mozorratua bada ere.

Aro horretan, kanpora ateratze-koak ziren merkatalgaien produkzioa bere goren graduraino bizkortu zen; aldi berean, eta esku-lana merketzea helburu, populazioaren hazkundera biziki akuilatu zen. Soldada eskasek eta haurren lanak produkzioari indar ematen ziotela esaten zen.

Merkataritzaren hedakuntzak produkzioaren arloan halako gehikuntza ederrak eragin zituen, gehikuntza horiek ohikoz kanpo hazi ziren teknologiaren arloko aurrerapenei esker eta Industria Iraultza iritzi zitzaion haren ondorioz etorri zirelarik.

3. Neoliberalismoa zertan den. Hurbilketa saioa.

Merkantilistek aldarrikatu ohi zuten estatu-kontrol hark kanpora begira jarritako oztopo irmoak, bestalde, ordurako Sistemak behar eta nahi zuten merkataritza biziagorari begira eragozpen kaltegarri bilakatu zitzaizkion. Aro hura "berria" zen, eta Sistemak ere bere jarrera zurtzeko egoki letorkiokeen beste "teoria berri" bat behar zuten. Hala xe sortu zen Liberalismoa.


Liberalismoa.

Teoria honek dioena sinestuz gero, Sistemak berak, inertzia hu-tsez, oreka-egoetara joateko joera luke, eta horrek mesede egingo lieke interes kolektiboari. Horrek halako batean lelo miragarria sortu zuen: "Laissez faire, laissez passer. Le monde va de lui même", hitzez hitz esanda, "utz egiten, mundua berez doa-eta bere erroetan". Edo bestela esanda, gizabanakoek: enpresarioek, langileek, merkatariek, nekazariak, ... beren interesak ahalik eta hobekien zaintzeko ahaleginean Sistema bere oreka osora eramango luke, berezkotasun edo sen hutsez; eta orduan denok onuradun.

Merkatuetan eskaintzaren eta es-

kariaren legearen barruko indarrek prezioak halako maila egoki batzuetara eramango lituzkete, non ekoizturiko guztiak erosleren bat izango bailuke; lanaren arloan aldiz, enplegua iraunkorra izango litzateke, soldatak eurak ere egokitu egingo liratekeenez gero. Gizabanakoaren askatasuna eta jabego pribatua, hara hor mundu berri horretako arau sakratu berriak, ukiezinak, garai hartako Biblia bilakatu eta harrigarriro arrakastatsua izan zen "Herrien abarastasuna" liburua egileak, Adam Smith-ek, idatzi zuenarekin bat.

Sistemak hedakuntza handiko urte batzuk bizi izan zituen, harik eta haren funtzionamenduari goitik behar emana eman zion arte; goitik behar horren izena "Depresioaldi Handia" da, eta gaitzaren eragile nagusiak zein izan ziren esatea ere komeni da: industri-gehiprodukzioa eta eskari ez-askia, antolaketa kaosa edo anabasa eta botere guztia erosle eta saltzaile indartsu bakan batzuen eskuetan bildu izana (monopolioak), besteak beste. "Laissez faire" haren mundu zoriontsua goitik behera erori zen (1929). Bada, ezinbesteko zuten ideiak berriztatzea, egokiarazten jakitea.



Keynesianismoa.

Sistemari "aske" irizten zitzaion, librea. Estatuari bere kontrolatzaile-papera berriz ematea derrigorrezkoa zen, ordea, Sistemaren irudia zaintzeko, bai, baina batez ere Sobiet Batasunak giza-multzoei halako garanti-sorta bat ematen zenez gero Kapitalismoak berak ere antzekoak eskaini beharra zeukalako, bestela ideologiaren arloan lekua galdezakeen, eta nork jakin?, haren estabilitatea kolokan jar zitekeen. Sistema astintzen zuten gaitz nagusiak bi ziren, enplegu-eza eta gizarte-laguntza hain urria izatea, gogoan izan behar delarik, bestalde, Bloke Sozialista esaten zitzaion haretan langile klaseak bizi zuten egoaren aldean mundu kapitalistako gaitz horiek larriago bezala agertzen zirela.

Gaitz horiek era edo modu oso bikainean gainditu uste izan zituen Keynes-ek, 1936an argiratu zuen bere "Teoria orokorra diruaz, interesaz eta enpleguaz" liburuan, hain zuzen. Hark aldarrikatu zuenez, erabateko enplegua sortzearen alde Estatuak berak eman beharko zien lana langileei, gastu publikoaren bidez, hots, "beharrezkoa izenez gero lurrean zuloak egin eta zuloak berehala betez". Gakoa ez zetzan, haren ustez, lana merketuz eta enpresarioak langileak kontrata zitzaten bultzatzean; gakoa gutxiei lana emateko hainako ondasun-eta zerbitzu- eskaria sortaraztean zetzan. Egia da, bai, haren teoria hori liberala baino logikoagoa eta gizatiarra dena.

Keynes ezker muturreko erradikaltzat jo izan zuten, zeren eta gastuak egin zitezten proposatu baitzuen, etxegintzan, hezkuntzan, azpiegituretan, osasungintzan eta abar; eta horrez gainera lan merkatuaren marko erregulatzailerik baten alde egin zuelako ere, gogoan hartzekoa izanik marko

horren barruan sindikatuen zeregina esanguratsua zela. Aldi berean, zerga-sistemaren oinarria zuzeneko zergetan eta zerga progresiboetan jartzeari aholkatu zuen; beraz, zenbat eta errenta handiagoa orduan eta zerga gehiago ordain zedin proposatu zuen. Horrela sortu zen Ongizatearen Estatuaren teoria, hots, hiritarrei zerbitzu publiko, osasungintza, hezkuntza eta halakoez gainera populazio guztiari gutxienezko batzuk ere ematen zizkien estatua, gutxienezko horien artean desenplegu-laguntza, gutxienezko soldata eta... erabateko enplegua izango zuela agintzen ziena bera.

Nekez aurki zezakeen teoria egoikiagorik garai hartako kapitalismoak. Bigarren Mundu Gerratearen ostean, aldiz, sistema hazkunde-biziko fase batean sartu zen, harik eta fase hori agortu zen arte, 1977an gertatu zena, hain zuzen. Bitartean, Sistemak bere baitakoak edo izaerazkoak dituen aldiaren aldiko krisialdiak bizi izan zituen, denak leunak. Haatik, urte horietan zehar Kapitalismoan bertan zein bere



Keynesianismoa. Gizarte-babesa eta erabateko-enplegua garatu zuen teoria.

3. Neoliberalismoa zertan den. Hurbilketa saioa.

ekonomi ingurunean ere barne-aldaketak ari ziren gertatzen.

Bloke Sozialista deritzonaren gainbehera.

Behin Bloke Sozialista zeritzan haren gainbehera gertatuz gero, Kapitalismoak ez du aurrerantzean Ongizatearen Estatuaren premiarik ikusten, zeren eta horren sorrera ekarri zuten arrazioen arteko bat aipatu berri dugun bloke horretako Estatuaren menpeko aldeetan langileek bizi zituzten bizi-baldintzen antzekoak ematea baitzen. Ongizatearen Estatuaren eraispena edo suntsiketa hirurogeita hamarrek hamarkadan hasi zutela esan daiteke, garai horretan ekin baitzitzaion Gizarte Segurantzaren eta lanmerkatuaren erregulazioaren kontra erasotzeari.

Gobernuek gastu publikoa haztearen aldeko politiketan sartuta segitu zuten arren, harrez gero diru horiek ez ziren gehien bat produkzioa eta enplegua sortzeari buruz bideratzen. Haatik, kutxa publikoetako diruak espekulazio maniobretan erabiltzen hasi ziren, gero eta nabarmenago.

Gobernuek euren ekonomien gainean zuten kontrala gero eta ahulago bilakatzen ari zen, zeren eta konpainia transnazionalak merkatua, gero eta zabalago egiten ari zen merkatua hain zuzen, euren alde erabiltzeko gaitasunak eta botere monopolistikoak baitzituzten; gero eta sendopagoak gainera. Kontrolpean zituzten merkatuaren funtzionamenduaren sustraiak eta prezioen bilakaerak. Hala bada, Keynesen iritziz inflazioa zegoen, bai, baldin eta erabateko enplegu egoeran ondasun eska-

riak gora egiten bazuen, bestela ez. Halako egoera batean, ordea, eskariari erantzuteko asmoz produkzioan gora egitea ezinezkoa zenez, prezioek gora egiten zuten. Langabezia zegoelarik ezinezkoa omen zen inflazioa, zeren eta hori, langabezia, ondasunen eskariak gora egin eta aldi berean produktzeko gaitasunak bere goia joa zue-nean gertatzen omen zen; paroa egonik, beti omen zen posible produkzioaren hazkundera.


Bada, halako batean Keynesen teoria bete ezineko bilakatzen hasi zen, monopolio handiek, eskaintza eta eskariaren legearen "lege" teorikoetatik urrun, prezioetan igoerak eragiten baitzituzten. Bestela esanda, merkaturak desagertu egin zen.

Ustegabeko gaitz horren diagnostikoa eman nahiz, hor agertu ziren Sistemaren teorikoak berez "ulertezina" zen fenomeno bat aipatuz: stangflazioa. Izen ilun horren bidez adierazi zuten aldi bereko langabezia eta inflazioa bazirela, izan, eta egoera hori definitzeko asmoa ere adierazi zuten.

Erraz ulertuko den legez, krisia, langabezia eta inflazioa nagusi ziren testuinguru horretan, langileen erantzuna beren eskariak ozenago aldarrikatzea izan zen. Haatik, langile-indarra erakundegintzaren arloan eta ideologiarenean, bietan, ahaldu beharra zuten sistemak, horren planeekin aurrez aurre langileriak zuen antolaketa-gaitasuna indartsuegia zenez gero.

Garai berriak, teoria berria, Sistemak bere jokabideari justifikazioa bilatu behar dio, beste behin ere. Helburua betikoa da, ordea; kapital-pilakuntza areagotzea eta horren aurka jo dezakeen guztia suntsitu beharra.


Sindikatuak. Neoliberalismoaren helburuetariko bat sindikatuen boterea murriztea da.



Neoliberalismoa, edo jatorrizkora itzultzea.

Keynesianismoa bertan behera lagata, Kapitalismoa bere jatorrizko egoera primitibora itzultzen ari da, hots, basoko legera. Haatik, bere filosofia guztia jazteko sortu duen testuinguru teorikoan halako arrazionaltasun bat dagoela adierazi nahi du eta, hara non, arrazionaltasun-behar horrek berrerek uzten du hobekien agerian indarrean den ideologia nagusi horren egiturazko sustraiak non diren.

Nagusi eginik dabilkigun dotrinari Neoliberalismoa izena eman zaio, nahiz eta Adam Smith-en "laissez faire" ospetsutik urrutibili bera. Sistema Kapitalistak iraganean hartu du eskarmentu, aurrera egin du teknologiaren arloan eta sinesten ere gaitz egiten diren mailetara iritsi da botere ideologiko, politiko eta militarren arloan, horiek bide ematen baitiote irabazi-tasa hobetzearen aldekoa den bere jarduketan, helburu horrek -tasaren hobekuntza- zilegi egiten dizkiola mota guztietako bortxa-bideak, ezkutukoak nahiz agerikoak izan horiek; giza-eskubideak, askatasuna eta demokrazia zurikeriarik handienaz ozen aldarrikatzeari uzten



utzi gabe, horregatio.

Bloke Sozialista honez gero desgerturik dela eta, Sistemaren helburuetako bat, obtsesiboa, Ongizatearen Estatua deritzona desagertaraztea da, zeren eta doan edota kostu baxuz ematen diren zerbitzuak kalte egiten baitiote urrezko txahalari: irabaziari. Eta are haratago doa, ekonomian esparruan Estatuak duen eskuhartzea ahalik eta ahulena izan dadin bilatzen du. Neoliberalismoaren ikuspegitik Estatuaren zeregin bakarra merkatuaren funtzionamendu "as-

Militarizazioa. Neoliberalismoak indarkeria erabiltzen du bere interesak defendatzeko.

3. Neoliberalismoa zertan den. Hurbilketa saioa.

kea'' bermatzea da.

Neoliberalismoak produkzio-bideen gaineko jabego pribatua gorputz eta arimaz defenditzen du, horrela baliabideak hobeto ustiatzen direlako aitzakiaz. Hortik ateratzen den ondorioa bikoitza da; Estatuaren eskuetan diren baliabideek esku pribatuera joan behar dute, baldin eta errentagarriak badira; errentagarriak izan ezean, aldiz, bertan behera utzi beharra dago. Merkatuak berak erregulatuko omen du ekonomia nongizabanakoa, berak sarituko omen ditu hoberenak, gizabanako nahiz enpresa izan horiek. Gizabanakoaren eskuetan egongo da gizabanakoaren patu edo zoria, atzera ere.

Horren atzean dagoena Finantz

Kapitalaren postulatuen defentsa da. Teoria honen jatorrizko aita, benetako, Milton Friedman da, Chicagoko Eskola deritzonaren sortzailea eta Keynesen etsai amorratua dena. Friedmanen arabera, gizabanakoaren askatasunaren jatorria ez dago demokrazia politikoan, ezta ere Estatuak bermatzen dizkion eskubideetan; haatik, haren iritziz librea izatea Estuaren eskutik aske izatea da. Irizpide neofaxistak adierazteko modu sotila, bai. Neoliberalak diotenez Estatuak ez luke esku hartu beharko... baina hori bai, helburua euren funtzionamiento arauak ezartzea baldin bada, ez dute eragozpenik haren indarra etxean nahiz nazioartekoan erabiltzeko orduan.



Jabego pribatuaren defentsa azken muturreraino eramateak ukatu egiten du badiñela giza-multzo jakin bateko pertsona guztiek erabil eta goza ditzaketen baliabideak eta ondasunak ere. Hastapen teoriko hori berez da adierazgarria, besterik gabe. Bada, baliabide guztiek jo behar ko omen dute merkatura, berori baita, Merkatua hitz larriz idatzita, Neoliberalismoaren sorgin-hitza. Ez dio ba Neoliberalismoak bere oinarria Merkatu Ekonomian duela? Horra hor ba zein den askatasunaren, aurrerabidearen, ongizatearen, bakearen eta zorionaren atea: Merkatua.

Teoria Neoliberalaren arabera, Merkatu Ekonomian dago, inon egotekotan, erabateko demokrazia; erosleak zer jakin bat eskatzen duen guztietan bere botua ematen du. Gero, botu horiek norantz jo duten, enpresek ere norabide horretara zuzentzen dute produktioa. Horrela eskaintza giza-multzoaren nahien arabera omen doa, "behar dutena produzitzen da" eta.

Enpresariak aldiz, elkarrekin

Baina, ba al da merkatu-ekonomia inon?



Merkatua. Neoliberalen iritziz, merkatuak jokabide demokratikoa erakusten du.

lehan eta botuen bidez erakutsi zaien bide horretan barna produktuz ateratzen dituzten etekinak ahalik eta handienak izan daitezzen bilatuz, sistemak bere erroetan funtziona dezan eragingo omen dute; "esku ikustezin batek" eramanda bezala, "le monde va de lui-même", erabateko orekara joango omen da sistema.

3. Neoliberalismoa zertan den. Hurbilketa saioa.

Haatik, eskaintza eta eskariaren legeak ez dute "lehia hutsa" edo perfektua delakoan baizik funtzionatzen. Inon ez da horrelakorik, ordea, zeren eta ekonomia, merkatalgintzaren zeingura arlotan, indar monopolistikoen menpe baitago gero eta hein handiagoan, estatuen nahiz supraestatuen esku-sartzea bera ere ahalsua izanik. Sistema Imperialistan maiz, oso maiz, herrialde menperatzaileek bortxaren bortxaz eta odolez ezartzen dituzte euren truke-legeak.


Ez da inoiz ahaztea komeni, ez, Teoria horrek dioenaren arabera betetzen diren premia bakarrak premia horiek galdatzeko edota erosteko gaitasuna dutenenak direla; zorigaitzokoen premiak, jainkoak bere eskutik utzitakoena, bete gabe geratuko dira. Produzitu egiten da, bai, baina Sistemaren parte baten interesen arabera; giza-komunitateari zuzenduriko onurez hitz egitea falazia hutsa da, iraingarria.



Hapitalismoa. Planetak dituen baliabide naturalak ustiatzen ditu neurririk gabe, gizateriaren etorkizuna arriskatuz.

“Norberak huraxe dauka”.

zer merezi,



Sistemaren barruan ezberdintasun sozialak badira ere, gizabanakoen erruagatik da, Neoliberalismoaren ustez. Merkatu guztietan, baita Lan Merkatuan ere, aukera parekotasuna omen dagoenez, enpresario hoberenak izan behar irabaziak iristen dituztenak, eta langile trebeenak izan beharko lana eskuratu eta soldata hoberenak lortzen dituztenak.

Alabaina, ba ote da parekotasunik, batetik baliabideen jabeak direnak eta, bestetik, euren lan-indarra besterik ez dutenak daudene-

an? Langileen seme-alaben eta dirudunen seme-alaben artean? Hirugarren munduko hiritarren artean eta herrialde garatuetakoen artean?

Pilakuntza kapitalistak halabarrez eragiten du aberastasunak esku gutxi batzuetan biltzea, horren ondorioz ezberdintasuna, kontrola eta monopolioak areagotu egiten direlarik.

Neoliberalismoaren arabera, gizabanako nahiz herrialde pobreak baldin badira, eta izan ere badira, horren errudunak alferkeria, nor-

Gizarte-desberdintasuna.
Kapitalismoan gizarte-desberdintasunak gero eta haundiagoak dira.

3. Neoliberalismoa zertan den. Hurbilketa saioa.

beraren buruarekiko zabarkeria eta produktibitate eza omen dira, besteak beste. Teoria Neoliberalak ez du etikaren arloko hitzik erabili nahi, paso egiten du. Lehentasuna Ekonomia "positiboa" delakoak du, horren funtsa "eraginkortasuna" eta etekinik jasoena izanik. Eraginkortasuna, lehiakortasuna, ... lege sakratuak dira. Zuzentasuna, parekidetasuna, premiak asetzea, banaketaren etika, hots, "Arauturiko" ekonomia osatzen duten horiek, "eraginkortasun" horren kaltetan doaz eta, hortaz, ekidin beharrekoak dira. Premia bai, beharrezkoa da, "lehiakortasuna" pizten baitu, eta horrek produktibitatea baitakar. Esan dugun horrek guztiak Sistema Kapitalista osoa erabateko izuga-

rrikeria batera darama, "arrazionaltasun" hutsaren izenean bada ere.

Neoliberalismoak enpresa publikoak pribatizatu beharra aldarrikatzen du. Errealitatean egiten dena besterik da, ordea. Errentagarriak pribatizatu egiten dira, defizita dutenak ixten diren bitartean, inoiz ere kontutan hartu gabe zeinek zein gizarte-premiari erantzuten dion, horregatio. Kapital pribatuaren alde jarduten dute, Ongizatearen Estatua eraisten ari diren bitartean, azken horrek Finantza Kapitalari irabaziak murrizten dizkiola eta. Sektore Pribatua eraginkorragoa omen da Publikoa baino... Jakina, hala da Sistema Bankarioarentzat bere osotasunean.

Bankuak. Merkatu-ekonomia-ko benetazko onuradunak bankariak dira.



lan-merkatua


Teoria Neoliberalak dioenez Lan-Merkatuak berak ere eskaintza eta eskariaren legeen menpe funtzionatzen du. Langabezia -dio horrek- egon bada; baina hori langileek euren, Sindikatuen bidez, eskatzen dituzten gehiekeriei zor zaie. Paroaren errudunak Sindikatuak eta langileak euren omen dira. Langile-multzo osoarentzako enplegua nahi baldin bada -diote- soldatak murriztu eta Sindikatuen boterea ahuldu beharra dugu. Zer esanik ez, estatuaren esku-sartzea erabat baztertuz. Ideologi-montaketa honi halako izen mitiko bat ematen zaio: "lan merkatuaren malgutasuna".

Hortaz, 1984ko eta 1994ko Erreforma Laboralak Teoria Neoliberalari atxikiz egin ziren, zeren eta horien helburua enplegua erraztea izan omen zelarik, lanaren kostuak murriztu baitzituen, horrela praktikan zeukaten helburua enpresen etekinak gora jozatzela izanik. Gertatu ere, halaxe gertatu zen; etekinak gora egin zuten. Enplegua hobetu beharrean langabezia izan hazi zena, ordea.

Gorago esanda utzi dugunaren haritik, erralitateak argi erakutsi du



3. Neoliberalismoa zertan den. Hurbilketa saioa.



Merkatuaren malgutasuna.
Bere helburua etekin-tasa
haundiaqoa lortzea da.

ezen soldata errealak -erosteko gaitasuna = benetako soldata- murriztu arren, ez dela erabateko enplegua sortzen. Okerragoa dena, Lan-Merkatuaren "malgutasunak" dakarren bakarra lan-ezaren hazkundera da. Bitartean gobernuak, "merkatu aske eta demokratikoaren legeei" zor zaien "begirune" ospetsuaren aitzakiz, ez dute enplegua sortzeari buruzko ezein politikatan esku hartu nahi. Argi gera bedi langabeziaren kausa nagusia norabide bakar, edo hego, esku-lana aurrezte eta irabaziak hobetzea dituen teknologi-aurre-

rabidea dela, Sistemak ez baitu bere funtzionamenduaren barruan ezeri buruzko inongo irizpide etikorik erabiltzen. Ez da soldata lehiakortasunari eragiten dion aldagarri bakarra. Hori horrela baltz, soldata-maila jasoak dituzten Estatu Batuak, Alemania eta Japonia munduko herrialde lehiakorrenak direla ez luke inork esango.

Arazoa

ez da langabezia, inflazioa baizik.

Prezioen kontrola, hots, inflazioa, horra hor Neoliberalismoaren seta nagusia, menperatu beharreko etsaia. Langabezia, demagogia egitea beharrezko zaien unetan izan ezik, bigarren mailako gaitza da. Egungo politika ekonomikoen jomuga nagusia inflazioari galga jartzea da, behin helburu hori iritsiriz gero Ekonomiak eta Gizarteak dituzten arazoak konponduak izango direlako ustean. Zer gertatu da, ordea? Bada, OCDE delakoan diren herrialde gehienek hala edo nola kontrolpean jarri dutela inflazioa, bai... baina bitartean enplegu-eraketak historian egundaino izan duen maila gorena iritsi du, 38 milioi langabeko OCDE horretan! Europar Batasunean monetarekikoan duten grina errailetan hazten zaiela dirudi, hor ari baitira beti, inflazioak hau, interes tipoek hori, defizit publikoak bestea...; enplegua, gizarte-laguntzak eta hiritarren gehiengoari eragiten dizkioten arazoaren multzo nagusiak ez dituzte ez



gogoan hartu nahi, ordea.

Neoliberalismoaren aburuz, Politika Ekonomikoa gidatzearen aldetik Moneta Politika da tresna hobezina. Horri esker, keynesza-leek eredutzat duten estatu-intertzio gorrotogarri horren esparrua murrizteko baimena dute, eta aldi berean garrantzi handikoagoak zaizkienak lortzen dituzte, alegia, aurreranzko zerga-sistema ez bizkortzea (gogoan izan sistema horren funtsa: diru-sarrerak gora, ba zerga gero eta haziagoak) eta gastu publikoaren kontrolpean edukitzea; zertan esan ez dago, zerga sistema hori eta gastu publi-

Langabezia. Neoliberalismoaren ustez, langabezia ez da eragotzi beharreko helburu bat.

3. Neoliberalismoa zertan den. Hurbilketa saioa.

koa Finantza Oligarkiaren interesentzat "kaltegarriago" da langile-multzoentzat baino.

Beste alde batetik, esaten da ba interes-tipo baxuek ekonomia bizkortzen dutela, enpresarioek inbertsio gehiago egiten dutela, eta abar. Neurri horiek ez dute ekonomia berez bizkortzen, ordea. Inbertsioa egiteko orduan balizko irabaziak izaten dira kontutan batetik bat. Irabazien aukera argi aurrikusten ez bada, jai inbertsioek!, ez baitago ekonomiaren jarduera piztuko duen beste mirarik.

Estatu gehienek bideratzen duten politika-mota Moneta Politika izanik, Kapitalaren kontrola dutenek euren amets gozozenatariko bat dena, alegia, espekulazioaren alorrean bezala finantzen alorrean

ere euren interesen gestio errentagarria gertatzea, bete egin da: horra hor kapitalen zirkulazioa askea, horra hor trukearen kontrolak desagerturik, horra hor Finantza Kapitalari traba egiten izan dioten horietatik ezer ez dela honez gero bizirik.

Egorea horrek eskutik ekarri du nazioarteko finantzen zirkulazio-alde edo esparru bat, ezein kontrol politikoren menpetik kanpo dagoena, eta aldi berean "mundu oreka" delako horren politika, ekonomia, gizarte eta militar gaien alderdietan egundoko eragina duten izaera politikoko presio-indar izugarriak nondik nora egin uzten diena ere badena bera.

Moneta-politika. Kapital-zirkulazio libreak finantza-espekulazioa ahalbideratzen du, inbertsioak errentagarri egin ditzaten.



Helburua: Ongizatearen Estatuaren eraispena.

Joana da garai historiko hura, Ongizatearen Estatua ezinebestekoa zenekoa. Garai hartan, eta beste aldean Bloke Sozialista delakoa zegoela gogoan izanik, kontrapisuarena egin eta matxinadak ekiditeko balioko zuten gizarte-laguntza gutxienezko batzuk ezinbestekotzat jotzen ziren. Haatik, Bloke Sozialistaren iraungipenak, desideologizaio orokorrak eta errepresio-kontrol aparailuen hazkunde izugarriak Ongizatearen Estatua baliogabe uzteko bidea ematen diote Kapitalari. Kapitalaren amets kuttun horietako bat berori izan da, eta ekin ere halaxe ekin zion duela denboratxo bat Gizarte Segurantzaren ohiko sistema hura erasteko lanari, hasieran erdi isilianedo jardun bazuen ere. Egungo egoera soziopolitikoak zeregin hori ageri-agerian eta pagutzat zigorrik jasan gabe egiteko bidea ematen du, ordea.

Ongizatearen Estatuak dirutza handiak erabil daitezten eskatzun du; Kapitalak, ordea, bere probetxu bakkarraren bila inbertitu nahi ditu horiek. Horrez gainera, dirutza horiek eskuratzeko bide arrunta zuzeneko zergak astundu beharra da eta, jakina, horrek ez die ez poza eragiten gizarteko goimailetakoei. Esan beharra dugu, ordea, dirutza horiek biltzeko beste bide bat armadei, poliziaei eta halakoei doazkien diruak beste zerbaiteko gordetzea izan zitekeela.

Gizarte-asistentziaren arloko gastuak murriztu behar diren orotan lelo berbera ateratzen digute, alegia, gehiegizko gastu publikoak inflazioa azkartzen duela, edota "Maastrichteko irizpideei jarraitu" behar zaiela, irizpide horiek eta neoliberalek aldarrikatzen dituztenak beretsuak di-



Bloke Sozialista. Egiazho Sozialismoa deritzonaren desagerpenak ideologi kontrapisua deuseztatu du.

3. Neoliberalismoa zertan den. Hurbilketa saioa.

rela argitu gabe, noski. Ahotan erabiltzen da nola Gizarte Segurantzaren defizitarioa den, eta nola horri eustekak eskatzen dituen gastuei aurre egiteko dirurik ez duen Estatuak, eta osasungintzaren gestioa esku pribatuetan uztea zein ona litzatekeen erdi-esaten dute, eta inongo lotsarik gabe proposatzen digute langileak eurak izan daitezela etorkizuneko pensioak ziurtatuko dituztenak, erakunde pribatuen gestionaturiko Pentsio Fondoari bidez hain zuzen.

Esandakoak esanda, langabetuen arlora begira dituen proiektuetan erakusten digu Neoliberalismoak bere alderdirik mingarriena. Osasungintza eta Pentsio Fondoak Sektore Pribatura joan daitezela proposatu du, hain zuzen ere, horiek biak diruzta handien iturri izan daitezkeelako, besterik gabe. Ez du, ordea, enplegu-aseguroa Sektore Pribatuaren eskutara joan dadin proposatu, langabetuek ez baitute diru erabilgarririk. Hala bada, Neoliberalismoak langabezi-asegurua desagerpenaren premia aldarrikatzen du. Berehala desagertaraziz gero gizartearen goitik behera dardaratuko litzatekeenez, aspaldi ekin zion hura astiro murrizteari. Gero eta baxuagoa dira langabezi-saria eskuratzen duten langabetuen portzentaia.

Finantza Kapitalak erabilgarri dituen fondoak gorantz doaz, langileak gaizki ordaindutako enpleguak hartzerantz behartzen dituzte eta lan-egorak duintasun gabekoak dira askotan. Benetan inhumanoa den portara hori bidezko dela frogatu nahiz erabiltzen diren arrazoibideek hala ko zurikeria sinestezin bat adierazten dute: "baliabideak lana sortzea-

ren alde erabili behar ditugu, langabezia subentzionatzen ibili gabe", "hobe arrantzuan irakastea arraina ematea baino", "langabezia-aseguroak alferkeria pizten du", "pobreak, ezer izatera iritsiko bada, gosea behar du akuilu". Era horretako argudioek ez dute beste hitzik behar.

Zerga-sistemari dagokionez, ostera, neoliberalak euron kastari zuzen jotzen edo eragiten dieten zergen aurkakoak dira, hots, ez dute zuzeneko zergarik nahi, ez dituzte PFEZ delakoa, Ondareari buruzko zerga, Sozietateena eta halako besteak gogoko, gurago baitute zeharkako zergen alde egin, hau da, BEZ delakoaren alde jotzen dute, horrek prezioak zamatzen dituenez gero, horrela pobreak eta aberetsek berdindatzen baitute.

Zergak. Neoliberalak beraien diruetan eragiten duten zergen kontrakoak dira.



Neoliberalismoa

eta bere ondorioan.

Onartu beharra dugu; Neoliberalismoa, ideologiaren aldetik, hegemonikoa da. Teoria Neoliberalaren ezarreraren ondorioak begibistakoak dira: jakina, inflazioak ez ditu iraganen ematen zituen zenbaki izugarriak ematen, Sistemaren irabaziak polito berreskuratu dira, ohiko sindikalgintza tradizionala guztiz gainbehera dator, OCDE delakoaren barruan langabezi-tasa bikoiztu egin da eta zorrotz eta zurrun betetzen da harako "garapen ezberdinaren hastapen" hura, alegia, herrialde garatuek eta herrialde ez hain garatuek elkarrekiko duten aldea (eta lehenengo horien barruan klase batzuen eta besteen artekoa ere), gero handiagoa da, nahiz dela errentaren aldetik, nahiz dela ongizatearen aldetik.

Neoliberalismoak ez du ekonomi-hazkunderen tasak iraganeko mailetan irauten iritsi. Irabazien tasa igoaztea iritsi du, ordea, eta hori horrela den artean, hazkundera bigarren mailako arazoa da.

Horra hor Neoliberalismoaren ondorioak: 38 milio langabetu OCDE delakoan, lur errearen politika herri azpigaratuetan, 90koetako krisialdi gorria eta abar, baina, zer dela eta ez da haren metodoen kontrako erantzun erasokorrik sortu? Galdera honek hausnarketa sakona eragin beharko lioke langileriar bere osotasunean.

Neoliberalismoaren garaitza nagusia ideologiaren arlokoa izan da. Haren filosofia da hegemoniko edo nagusi gizartea gaurregun. Aldi berean, langilearen baitan fenomeno kezagarriak gertatu dira; esate baterako, halako ideologi gabetze bat gertatu da, klasesentimenduaren ahultze bat, elkartasunaren gainbehera bat. Langi-



leon gatazka-esparruen artean hona hemen benetan garrantzi handikoa den bat, gure ahalegin saiatuenak eskatzen dizkiguna.

Hedabideen laguntza paregabeaz dotrina-gorputz trinko, burukontziente, militante eta izugarri

3. Neoliberalismoa zertan den. Hurbilketa saioa.

arrikusgarri bilakatu da Neoliberalismoa. Horrez gainera, nazioarteko mailan gerta zitekeen edozein aldaketa-asmo edo asmotxo eragozteka da beraren helburua. Arrakasta iritsi du, bai, oraingo sistema hau bakarria dela sinestartezaren aldetik, sistema honek aukeran ordekorik ez duelako ideia ondo zabalduz, alafede.

Bizi ditugun garaiak zailak izanik ere, eta Piztia Neoliberalak gaindiezina ematen duen arren, ez dugu ahaztu behar beste Gizarte libreago baterako bidea urratzea lan gogorra dela, gibela eta bihotza eskatzen dituena. Haatik, utopiaren garra iraunaraztea eta berritzea ezinbesteko lana dugu, bizirik iraun nahi badugu behintzat.

Gizarte-aldaketa. Neoliberalismoa ideologikoki eraso egin behar dugu, gizarte libre eta solidario baten aldeko borrokan.



Bibliografia

- Albarracín, Jesús et al. (1993). La larga noche neoliberal. Editorial Icaria.
- Anderson, Perry (1996). Neoliberalismo. Balance y perspectivas para la izquierda. En Viento Sur nº 26 / Mayo 96.
- Fernández Durán, Ramón (1996). Contra la Europa del capital y la globalización económica. Editorial Talasa.
- Fox Piven, Frances (1996) ¿Globalización de la economía o neoliberalismo? en Viento Sur Nº 25 / Marzo 1996
- Galbraith, John Kenneth (1989). Historia de la economía. Editorial Ariel (7ª edición)
- Galbraith, John Kenneth (1994). Un viaje por la economía de nuestro tiempo. Editorial Ariel
- George, Susan (1996) Cómo el pensamiento se torna único. Le Monde Diplomatique, edición española, nº 9/10, julio agosto 1996
- López Estornell (1996). Contra el pesimismo en la izquierda. En Claves de razón práctica, nº 64, julio-agosto 1996.
- Martín Seco, Juan Francisco (1995) La farsa neoliberal. Ediciones Temas de Hoy.
- Ramonet, Igancio (1996) Un mundo sin rumbo. Dinámicas y peligros de la mundialización. En Hika, nº 71, octubre 1996.
- Sarfati, Hedva y Kobrin, Catherine (1988). La flexibilidad del mercado de trabajo. Informe OIT. MTSS.
- Torres, Juan. (1992). Introducción a la economía política. Editorial Cívitas, S.A.

ariketak

3.

Neoliberalismoa
zertan den.
Hurbilketa saioa.

GALDEKETA.

- 1.- ZEIN DIRA ONGIZATEAREN ESTATUA DERITZON HORREN FUNTSEZKO EZAUGARRIAK?
- 2.- ZER DA MERKATU EKONOMIA?
- 3.- EKONOMIA NEOLIBERALEAN, NOLA FUNTZIONATU BEHAR DU LAN-MERKATUAK?
- 4.- POLITIKA EKONOMIKOA BIDERATZEARI BURUZ, ZEIN DIRA NEOLIBERALISMOAK DITUEN TRESNAK?
- 5.- ZEIN DIRA NEOLIBERALISMOAREN HELBURUAK, ETA HORIEK NOLA IRISTEKO ASMOA DU?
- 6.- ZER DELA ETA EZ ZAIO NEOLIBERALISMOARI ERANTZUN SOZIAL EGOKIA EMAN?